

**Ione Belarra**, Podemoseko diputatua Nafarroatik:

# “ALTSASUKO GAZTEEN AUZIAN TABERNAKO BORROKA BAT POLITIZATZEN SAIATU DIRA”

Iruñea, 1987. Espainiako Kongresuko diputatua da. Madrileren joan zen psikologia egitera eta harrez gero joan etorrian dabil. Kongresuko Podemoseko bozeramaile Irene Monteroren albokoa da eta alderdiko zuzendaritzakoa; areago, “itzaleko gobernua” –balizko gobernua– deitzen duten 24 kideetako bat da, migrazio politikez arduratzen dena.



**Xabier Letona**

@xletona

ARGAZKIA: IÑIGO URIZ

**Egur handia jaso duzue Madrilen Altsasuko gazteen auzia Nafarroan epaitzea eskatzeagatik, baina Nafarroako Auzitegiak ere horixe eskatu du.**

Kasu horrek behin ere ez zuen atera behar Iruñeko Auzitegiko 3. aretotik. Zentzuzkoa hori da, tabernako borroka bat politizatzen saiatu dira eta. Azkenean, PPK egin dituen mozal legeek –kasu honetan Zigor Kodeak– oso lauso uzten du terrorismo delitua eta horren arabera edozeini lepora dakiokete terrorismoa.

**Zein inpresio duzu PSOEk eta EAJk Mozal Legea erreformatzeko aurkeztu dituzten proposamenez?**

Hau bertan behera utzi Corcuera Legera itzultzeko? Hori ez da guk nahi duguna. No Somos Delito eta gisako elkarteekin lanean hasiko gara behar diren zuzenketak egin eta ez gaitetzen lehengo legeetara itzuli, herritarren eskubideak babestuko dituen legedi batera baizik.

**Madrileko Vistalegren egin berri duzuen kongresuan zatiketa arriskua egiazkoa izan zen askoren ustez. Nola ikusi zenuen egoera?**

Ez dut uste apurketa arriskurik izan de-

nik. Izena ematen dugunok erabakitzen dugu Podemosen eta hori sekulako tresna da. Hainbeste jendeak bozkatzeko duen zaila da hanka sartzea.

**Bada, tentsioak oso gora egin zuen eta bazen apurketaren arriskuaz hitz egiten zuen jendea, kanpoan eta barruan.**

Bai egia da, Vistalegre aurreko uneak tentsio oso handikoak izan ziren eta hainbatetan erabili ziren kideekiko inoiz erabili beharko ez liratekeen hitzak. Alde horretatik, Miguel Urbanek asmatu zuen egokien mezuarekin: “Etsaia kanpoan dago, ez barruan”. Eztabaida genezake eta iritzi desberdinak izan, baina guztia giro egokian eraman behar dugu beti. Kultura politiko piska bat falta zaigu oraindik.

**Podemoseko lurrikararen epizentroa, gainera, Madrilen zegoen. Borroka horiek ez dira baretzen berehalakoan.**

Pablo Iglesiasek irabazi izanak zauriak sendatzen lagundu du, zuzendaritza berriak Iñigo Errejoren taldeko jendea hartzen du eta: Errejon bera, Pablo Bustinduy, Auxiliadora Honorato... Antikapitalistetako Miguel Urban ere hori da.

**Ordezkaritza sistemak antikapitalistak zigortu ditu: botoen %13 lortu zuten, baina zuzendaritzarako hautatu beharreko 62 pertsonetatik bi bakarrik egokitu zaizkie.**

Ez dut uste primarien testuinguru batean zigor kontuez jardun litekeenik, areago desberdintasunak oso kontuan hartu direnean eta aurrera begira bakarrik begiratu nahi denean. Beste espazio batzuk ere badituzte, Madrilen, Andaluzian... uste dut badutela beren posizioa defenditzeko modurik.

**Hiru urte ez da ezer alderdi baten bizitzan. Kalean sortu zineten baina soilik bide instituzionalean erortzeko arriskua duzue, Vistalegren ere jorratu da gaia. Nola saihestu hori?**

Batetik, Vistalegren oso ondorio garrantzitsu bat atera dugu: udal mailak duen garrantzia. Udal hauteskundeetara jo genuenean hainbatek garrantzi txikiagoa eman zion esparru hori, baina hori ari gara frogatzen biharko egunean gobernura eraman dezakeguna.

Bestetik, aurrean dugun boterea indartsua da. Trama hau guztia desegiteko estrategiak oso ondo zorrotz beharko ditugu: bide instituzionala, mobilizazio handiak kalean eta profesional oso onak.



#### Kalea itzaltzen ari da?

Uste dut jendea berriz hasi dela mobilizatzen, ikusten baitu lan instituzionala ez dela nahikoa. Guk argi dugu, instituzio alorra indartsua izanda ere, horrek kalean kontrabotere indartsua ez badu, ezingo ditugu gure herrialdeko botere harremanak aldatu.

#### Pedro Sanchezek irabazten baditu PSOEko primariak, berriz izango duzue harekin ituna egiteko prest izango den jendea.

Alderdian boterera iristeko moduz eztabaida izan dugu, baina uste dut esajeratu egin dela Podemosen PSOEra begira dagoen jendearen planteamenduz. Hori gehiago izan da hainbat hedabideren jokoa. Edozein modutan, Pedro Sanchezek nahi izan balu gurekin ituna egin austeritate politikei aurre egiteko, lehenago ere egingo zukeen.

#### Nafarroako Gobernua sostengatzen duzuen alderdiek Madrilen ere ematen al diozue sostengua Foru Gobernuari?

EH Bildukoekin egiten ditugu gauzak elkarrekin, esaterako Altsasuko gaia. Lutzaten diogu eskua elkarri, baina haien ordezkariak Bizkaia eta Gipuzkoakoak dira, ez dago aldaketaren gobernuko beste ordezkariarik Madrilen eta horrek zaildu egiten ditu Foru Gobernuari begirako lanak.

#### Katalunian aldebakarreko erreferenduma egiten bada, Madrilen sumatzen da autonomia desegiteko moduko giririk?

Katalunian iritsi gara une batera non ez PPren Gobernuak ez Junts Pel Sík ez dakiten hurrengo urratsa zein izango den. Biek uste zuten une honetara iritsita beste aldean izango zela negoziatzeko prest zegokeenik. Gu gobernuan

bageunde aspaldi jarriko ginatekeen negoziatzera.

#### Nafarroan ez gaude ezta antzerako egoera batean ere...

Oraindik ez...

#### ... baina bagina, ongi ikusiko al zenuke hemen ere erreferendum bat egitea?

Gure proiektua plurinazionala da eta Konstituzioan lurraldeen erabaki esku-bidea onartuko genuke, izan Nafarroarako, Euskadirako edo dena delakorako. Hori da beti defendituko duguna.

#### EAEko zure kideek Nafarroarekiko harreman iraunkorrerako instituzioa bultzatu beharko litzatekeela zioten hango azken hauteskunde kanpainan. Zuk zer uste duzu?

Gure inguruko elkargoekiko harremanetan sakondu behar dela uste dut, areago gure antzeko egoerak bizi badituzte. Ez dakit zehatz mehatz zer proposatu zuten, baina harremanetan sakontzea ekar dezakeen edozer ona da.

#### » “Altsasun tabernako borroka bat politizatzen saiatu dira”

#### Migrazio prozesuak gero eta handiagoak izango dira Europarantz. Nola egin aurre fenomeno honi, toki askotan gertatzen ari den xenofobian erori gabe?

Argi erakutsi behar da krisi ekonomikoaren errudunak nortzuk diren, eta Podemosek hori egin du. Horrez gain, datozenei legezko bideak eta seguruak ireki behar zaizkie, hori da jokabidea. Jendea itsasoan hiltzen behartzen ari dira oraingo etorrera moldeekin.

#### Zein balorazio egiten duzu Nafarroako aldaketaren Gobernuaz?

Balorazio positiboa da. Laukotea egoki ari da lanean, Gobernua egonkorra da eta lan egin behar dugu hurrengo legealdian ere errepikatu ahal izateko. Hori bai, hurrengo legealdian gure lidergopean gustatuko litzaidake jarraitzea aldaketarekin. ■